

SERMONES MANUSCRITOS ANTIGUOS

Continuamos con la publicación de los sermones manuscritos existentes en la Biblioteca de la Academia de la Lengua Vasca y comenzados a publicar en el tomo de EUSKERA de 1960.

Los que damos en el presente tomo han sido transcritos por estudiantes del Seminario Diocesano de Bilbao (Derio).

Con el objeto de distinguir los sermones unos de otros, ya que no se saben los nombres de los autores de los mismos, exceptuados los publicados en el tomo de EUSKERA de 1960, irán numerados a partir de los del presente tomo.

Asimismo publicaremos en grabados las muestras de las escrituras de los mismos a su tamaño natural. (A. I.)

[En la portada dice:] Dolores de Maria.

[En la cabecera de la página dice:] año 1818.

*Dixit Sion: dereliquit me Dominus, et Dominus oblitus est mei.
Ysai. 49.*

Eternidadetic ezaguturic Jangoicuac guizonaren pecatuba, erabagui eban bere misericordija amai baguiaz, trinidadeco bigarren personiaren guizon eguite, ta pasinoe santuba, ta oni jaocazan gauza gustijac. Aita eternuaren seme bacar, eternidade gustijan beragaz Jangoicua zanac, sortuba izan biar eban eguneen baten espíritu santen. eguitez, ta gracijaz Dorcellaric garbi ta ederrearen sabelian, jaijoteco Jangoico guizon eguiña, miragarrizco moduban, bere Amaren Doncellatasunaren calte baga. Virginia ta Ama bacar onen frutuba, da N. C. Mundu pecatubac bere

gañian arturic, gustioen zorrac gaitic Aita eternuari eranzun eutsana, iños enzun, ta icusibagaco pena, tormentu, ta eriotzaric gogorteenaren bidez [hay una cruz con un punto en el espacio de cada triángulo recto]. O Guizonaren adiña, cein laburra zarian, aituteco Ainguerubei eurei ez aiteetan jaqueezan Jangoicuaren juicijuac! Aita eternuac ezarri gura dau pecatubari deutsan asarre gustija bere Seme maite, ta inocentiaren gañian, erosiric pasiñoe, ta eriotzaric gogorreenagaz guizon gustijac, izan dedin eureen guraso, ta sabaguilla [sic]. O pecatuba pecatuba, cein andi, ta icaragarrija dan zure pisuba, ta neurri baguia Jangoicuari emoten deutsazun asserratuteco vidia! Beguira ta zurtu zaite *Cac.* icusiric gauza gustieen eguillia curutze baten josiric, baquetutearen ceruba guizon pecatarijacaz. Baña oò [sic], batez bere arrituteco, Jangoicuac guizona salbeetaaren artu dituban asmo miragarrijac! Cer ete dà N. C. guizona? Cembat valijo ete dau bere salvacinoiac? Ez dago *C ac.* beste neurriric Jesusen odola baño. Vicitzia emotia costa jacon Jangoico, ta guizonari gure arimaac erostia. Cer enzun guiñai gueijago? Ezaguturic [sobre la palabra *ezaguturic* hay una cruz con un punto en el espacio de cada triángulo recto] Jangoicuac guizonaren argaltasuna, erabgui cituban beretzat misericordijazco sendagarri barrijac. Gura izan eban, araco doncella garbi, pecatubaren norban [sic] baga sortubac, bere esposa, ta amatzat autubac, igaro eguzian, pecataric munduban iños igaro ez cituban dolorezco pausuric garratzeenac, izan zedin pecatarijeen ama eguijazco, ta bitaartecoric sendueena. O pecatarijac, celaco pozagaz gura neusquezun gaur adierazo, ceruco Erreguiña, gustia errazto jaetzi daiquianac, artuten zaitubala bere semetzat, aterte arren pecatubaren catigarijo gogoretic, izan zaitian eternidade gustijan beragaz Aita cerucuarenac? Baña aà, celan nire poza biurtuko dan nailbagueric garratzeenian, baldin sarturic bitaartecotzat esquintzeco zubei Ama maite onen viotzeco amodijo, ta ondo guria, aurquituten banas, zuben gogortasuna gaitic, eranzuteco premiñaan, alperrac dirala zubentzat bere doloria [no se lee bien la última palabra por estar al borde del papel, el cual está gastado], ez dedilla necatu zuben billa, naijago dituzala pecatubaren esquintsarijac beriac ta bere semiarenac baño. Ez dozula artu gura amatzat Jesusec pocic artu ebana. Luurreco ondasunac dirala zuben gurasuac, ta ez dozula ezagutu nai besteric. Ai nire tristia onelacoric jazoco balitz gaur! Cè arpeguigaz biurtu neinde Ama dolorezco onegana, erregututera pecatarijac gaitic? Baña gauza batec poztuteneau *Cac.* ez onelacoric sinistuteco, ta dà jaquitia, gustijoc etorri zariala ceuben guraz, ta borondatez funcinoe onetara. Yzan dedilla nai badau batsubeen etorreria, enzun ta icus gura utsez, nai asmo deungaagoren bategaz & baña orregaitic ez ditut esperantza gustijac galduco misericordijazco egun one-

tan. Ez eban asco uste, araco Maria Egipturic oneijeene [sic] escandalubac, bere banidade, ta nasaitasuna gaitic, joianian arroturic Jerusalengo Eleisara, urtengo ebanic bere beguijac, pecatubeen damuz, malcoz gorrituric. Noc esan Saulori christinaubeen contra ebillenian suric gueijeenagaz, beingo baten izango zala Jesusen Apostolu, ta discipulu ain maitia? Agustin nasaija, juan oizan Sn. Ambrosioren sermoietara, vere verva eder, ta ondo apaindubac enzute arren, baña asco uste ez ebala Ceruco gracijac zauritu eutsan bere viotza. Ez dozu christinaubac cetan icharon nire ez jaquifetic belaarrijeentzat gozagarriric, Mariaren doloreetan daucagu pecatarijac cegaz atseguindu. Bere bitaartetasunac izan biar dau pecataria-rentzat pozgarriric andijena.

Asco oi dago pecatuco catee gogorreen azpijan urten guraric, ta azartu ecinda leguez. Cirkatuten ditu ceruco gracijac aituten emonic eureen utseguitate, ta bide gueistuac. Baña beste aldetic cembañaraz iminten ez deutsez Diabrubac. Batsui emoten deutsee confianza deungaro aitu bat, guero Jangoicuagana biurtuteco pecatuz ta munduz aspertu ditianian; [sic] gueure escutic Jangoicua erabilli albaguiñai leguez nai dogun gustirako. Beste batsui aldarabatera pecatu ezañ asco ecarten deutseez gogora, lotsa gueisto bat confeseetako, ta beguitandu eraguiten deutsee icaratuco litzaatiala confesoria eureen vici moduba enzunda, gogor artuko lituquiala, ta alan dagoz pecatubari pecatuba ezarten. Ascori, batez bere gente gazteen artian, vicitasun andi bategaz iminten deutseez eureen goguan araguijaren atseguin, Munduko adisquidetasun, banidade, arrotasun ta estimacioniac, euracaz ichuturic vici izan ditian [sic] Ceruco amai bagaacz aaztuta, pensau baga ondo munducueen iraupen laburrian. Ez dà erraz Cac. aztertutene beingo baten arerijo gueistuaren asmo caltegarrijac pecatuban jausi eraguin, ta bertan sartuta urten baga euquiteco. Guizonac bere indar ta áleguin utsez ecin urten daique bere atzamarretatic; biar dà orretaraco Ceruco graciya ta laguntasuna. Baña oò celan icharon daiquegun gaur iños baño obato pecatari errucarrijac! Zuben ama nas, dirauscu curutziaren oñietic ceruco Erreguiñac. Beguira ichasosco doloriac inguiratuta [sic] nauqueela, baña zuben amodijua nire viotzian indartsuago dà gustijac baño. Erdu erdu, neu botaarteko nasala asserraturic daucazun Aita ceru-cuagaz baquetutera.

Ô Amaric biguneena! Jesusen ama. Espiritu Santen. espresa ederra. Cec azpiratutene zaitu orlaguiña? [sic] [Hay tres palabras tachadas]. Errazoia dà guc zu billatutia, izanic zu ceruco gracijsaren iturriric ugarijena; baña zu guri deiez, zu pecatariei erreguca! Ô ama maitia, esan lei ori dala amodijuaren laarreguitasuna. Chritinau [sic] viotzecuac, ez alda aurquítuco gaur eleisa onetan, urtengo ez dabenic bere pecatubeen damuz Magdalena-

bat eguiñic, beguiraturic amodijo, ta dolorez naastaurico Yspilluric argui-jeenian. Ez alda iñor jarquico aimbeste Ceruco graciña ta mesederi. Eguin daigun bada gueure aldetic dana, galdu ez daiguzan ama maite onec guretzat daucazan asmo santubac, escaturic orain bere bitaartez niretzat aurrera jarraituteco graciña, esaten deutsagula Ainguerubagaz Ave Maria.

Dixitque Sion: &

Munduko glorija ta anditasunac, eureen ezerecera viurtutia beingo baten. Luurreco atseguiñei ondoren jarraitutia tristura ta naibaguiac, dira N. C. alcarri dautseen gauza iñor zurtu biar ez dabeenac. Escritura Santiac berac iminten deuscuz onetaraco exempluric arguijeenac. Yracurten dogu Saul bat, oraindic erregueren coroia buruban eucala, amalecita [sic] baten osticopian ciquinduba. Gezabel, erreguiñaren apaindurija, ta bere edertasun gustijagaz, chacurreen janaari izatera biurtuba. Araco Atalia, aïñ en-zuna, ta Jangoicottzat ordu guichi leenago ascoc adoreetan ebana, ertí gustico burla, ta desprecijagarritzat artuba. Aman soberbioso, mundo onrra gustijac guichieguitzat beretzat eucazana, iñorentzat prestau eban urcamendijan luzatuba. Olofernes, ta Sisara soldau mundu gustiari ica-ra eraguiten eutseenac, emacume biren ezpata, ta ultziacaz goitu, ta amai-tubac. Oneec gloriña gustijoc dira Cac. Iuurreco lora goisian eder, ta illuntzeco sicututen diraneen guisacuac. Araco oidei cerubari ichaachijac dirudieenac, ta aise pusca batec deseguiten ditubanac. Bana [sic] ceruco gloriña, Jangoicuaren doe, ta Ainguerubeen erreguiñaren coroe ederra, icustia gaur, guizoneen beguijetaraco ezaindu, ta ecerezera biurtuba leguez, da N. C. gure adin laburra igaro, ta viotzic sendueenac arrituteco gaucia.

Ó Jangoico andijaren spiritu amodijozco neurri baguia! Noraaguiño neurtu gura dozu ceure espresa maitiaren leijaltasuna? Beraz araco María doncella garvi, eder, ceru ta luur gustico arguitasunac, izan biar dau zure, ta bere seme Jesusi guizonic gogorreenac emongo deutseen curutzeco eriotza izugarrijaren testigu? Baña celan iraun daique viotz aïñ bigun ta samurrac, icusgarriric gogorreenaren aurrian? Celan jarqui [sic] viciric, aimbeste ezpata zorrotzaren zauri, cembalet edegui eutseen guizonic gogorreenac Jesusi? Munduko indar gustijac bat eguiñic ez ciran asco irauteco, beguiraturic ama maite onec bere semiari eutsan amodijua. Baña Ó mi-raarija! Aita Eternuac sendatutene dau bere alabaric maiteenaren vicitzia, eriotziac amaitu ez eguzian ain laster, igaro biar cituban doloriac, ta pecatariac billatu guinaijan gueure ama onegan amodijozco ondasun gueijago. Ó Marià, beraz Aita Cerucuac berac gura dau luzatutia zure pena ta do-

loriac. Ô emacumeric errucarrijeena! billatu eguzu edola bere atseguin puscabat ceure seme ederragan.

Ai Cac. gogoratu eguzu beingo baten Jesusen pasiñoe Santuba, preso artu ebeenetic Calbarrijoco Mendira aguiño, bada ez daucat nic astiric adierazoteco, cer pozgarri artu euquian ama batec [la última c está escrita sobre una n] onelaco seme bategan? Beguiratuco eutsan bai sarri, bana [sic] celan ecusan gauza gustieen eguillia? Ez deutsut esan gura Cac. sarri enzunda daucazuzalaco. Orregaitic esan euquian N. C. Jesusec verva gozoren batsuquin, nasaituco ebala cerbait bere amaren viotz dolorezcua. Baña ò guizona guizona, euqui eguzu ceure adiña bere neurrijeen barruban ta ez eguizuz gura aztertu Jangoicuaren juicio ondo bagaac. Jesusen beraren aotic urten dau ezpataric zorotz, [sic] ta mingocheenac [sic] bere amaren viotzarentzat. Zucenduten da beragana, ta dirautsa eracutsiric Juan bere discipuluba. Emacumia ara emen zure semia. *Mulier & Ô Aingueru Sn. Gabriel*, zuri deituten deutsut orain testigutzat emacume triste onen aldez. Ez cenduzan zu Aita eternuac ceru goijetatic bialdu, Doncella oni Jesusen ama eguijazcotzat autu ebalaco barri zorijonecua emotera. Celan daantzu bada orain bere aotic, ez amaren izen [sic] gozo, ezpada edoceñi emon eusquijon emacumiarena? Beraz ni ez nas zure ama, esango eban vere viotzian emacume triste onec. Beraz ez da Jesus ija neure semia, etcrriko jacon gogora instante gustietan. Nundà bada nire errajetaco frutuba? Ai, nire beguijac beti dazaubeè, azaletic ezainduba egon arren, ta ezdago niri beragaz aaztu eraguin daiquedan gauzaric. Aituten zaitut, bodaquit cer esan gura deustazun, zuaz neure semia emon eguzu ceure vicitza curutze gogor orretan, bada alan dà Aita cerucuaren borondatia, baña ni egongo nas zure urrian azqueneengo pausubac bete artian.

An aurquituten zan bada N. C. ama maite au, noc atseguin pusca bat emon ez eucala, araco Jesus curutzian ultze gogorrez josi ebeen instantte icaragarrijan; ta alaco baten pena icararrijeen [sic] erdijan enzuten deutsa dinuala *egarri nas*. *Sitio*. Alperra dà esatia nic zubei Cac. celaco gu-raarijac euco cituban amaric bigunenaren viotzac, emoteco edola bere atseguin bacarrau semeric tristeenari, baña bere aleguin gustijac ez dira asco ur tantabat billatuteco. Ô Cerubac! Eliasen erreguz edegui cifian beste dempora baten ezcotuteco Ysrrael gustija. Ô luurra, Moisesen cigorrac aterra [sic] eban ach gogorraren erditic urezco Yturri gozua. Cec zaucaz bada oraiñ, cec zaucaz, ceuben eguillarentzat, aiñ sicatubac? Ô pecatubaren indar aillaguiña cerubac, ta luurra sicatu ditubana! Ama maitia, ez daucazu cer esquiñi ceure semiari, beste ezcotasunic ceure begui ederretatic jausten jatsuna baño.

Naibague andijei darraicueè andijaguac, ta illten jaco beguijeen aurrian bere seme Jesus. Ò Ceruco ainguera, [un borrón ha hecho ilegible este espacio] triste onen testigu izan ciñanac! Celan gueratu zan ordu atan Siongo doncellaric ederrenea? Esan eguidazu icusi ezpacenduban gustija ori ta colorgatu, ta eriotziaren imagiña vici bat eguinic? Cembat bidar enzun ceuntzan esaten Jacobi bere seme Joseren illbarrijan baño viotz-gotic. Negarrez juango nintzainde ni Ynfernura aguño neure semiagaz egotearren. Baña ez ama maitia ez, eriotzia gozueguija da zuretzat, gueitu biar dabee oraindic zure doloriac neurri baga. Urragotic icusi biar dituzu ceure semiaren zaurijac, ta ceure escubac ucutu biar deutseè bere eriotziaren oztasunari. Beguira *Cac.* celan eraatziric curutzetic, imini eutseen altzuan bere discipulubac, Jesus illa. Ò icusgariric samurreena! Amaric biguneena semeric maiteena ill otzituric, gustia zauritu, ezaindu, ta ci-quinduric bere besuetan eucala. Au dà esango eban nire seme zana? Onerata biurtu da gauza gustijeen eguillia? Celan dacust neure viotzeco atsegui bacarra? Aita eternuac emon eutsan ceruco coroeric ederrenea noc biurtu dau arantza gogorretan? Justicijaco, ta misericordijazco escu indartsubac, noc zulatu, ta adorebagatu ditu? Noc verva baten, burutic beera zauri oso bat eguiñic, cirquinic eguin ecin dabela ichi dau ceru, ta luur gustijeen aguintarija? Ò begui, ceruco izarrac baño milla bidar argijaguac, cembat bidar beguiracune amorezcuaç gozatu oi ceunstan neure viotza, zacuztaz oraiñ illunduric. Ezpan eztitsubac, celan gomunteetan nasan emon deustazuzan atseguiñacaz, ta orain daucazun oztasunagaz. Ò matrilla [sic] eder aimbeste atseguiñegaz sarri laztandu ditudanac, ta orain odol, auts, icerdi, ta loiquerijac ezaindubac, cein desbardiña dan oraiñ azqueneengo agur triste onetan emotera nuatsun laztana, leen emon oi neutsuzanetatic. Baña ecin orregaitic ichi neizu emon baga neure amodijuaren señale au, jasoco badabee bere neure ezpanac zure arpeguico ciquintasunaren zati bat.

Ordubar Discipulubac artu eutseen Jesus, bere besueen artian ondo eztuturic eucana, ta ama dolorezco au anda buruko zala juan ciran sepultura edo obi lecura. Emen ciran Christinaubac laztan barrijac, agurric tristeenac, cizpururic estubeenac, ta penaric gogorreenac. Baña batez bere enzun ebanian araco arlosiaren otsa, ceñegaz eztalduba izan zan *J. Cen.* gorputz illa, artu eban bere viotzac azqueneengo ezpatiaren epairic mingochena. Artietan, edola bere, illic, ta zaurituric bazan bere icuste eban bere semia, baña ordubar gueratu zan atseguiñen izpi baga, ta dolorez gustija inguratuta. Ò Espiritu consoladore, amodijozco su vicija, erdu zu, edola bere, gozatutera cerbait ceure esposa maitia. Ez da zugana eldut-en danic iños atseguiñ baga gueratu, ez alda bacarra izango, bacarric

pecatarija izan ez dan emacume gustieen artian maiteen dozuna. Baña àà Cac. ezcuteetan jaco, esateraco, doncella eder oni, bere ceruco esposo bacarra, gueitu dedin alarguntasunic tristeara doloriaren doloriari. Nora biurtuko nas orain ni, esango eban ama triste onec. Nun atseen daique nire viotz eztu, ta larritasunez betiac. Beguiratuten badot Aita Cerucuagana dacust gustija asserratuba. Neure semia galdu dot iñoc ez laco moduban. Esposoric maiteenac ezcutau dau niganic bere arpeguija. Munduban ez da niretzat burla, ta desprecijua baño beste gauzaric. Beguirira, beguirea daguan edo ez nire doloreei bardinduteco penaric. (*)

Cac. adorau daiguzan Jangoicuaren misterijo andi, edo ezcutapen gurez gañeticuac: baña orregaitic edegui daiguzan gueure adiñac aztertuteco cerbait, guizonaren argaltasunari, ta berac emon deusczan arguitasunei jaoqueen moduban. Siongo alabaric ederreanac gura eban izan pecataria gustieen ama, ta Aita eternuac emon eutsan izate au igaro cituban doloreen ordez. Galdu biar eban modureen baten, bere seme Jesus, izateco mundu gustico guizoneen ama. Orra cegaitic Jesusec esquini eutsan Juan bere ordez semetzat, bada Juanen icenian sartutem cituban, eleisaco mai-subeen erechijan, munduco guizon gustijac. Artuten dau ama maite onec Juan bere semetzat Jesusen ordez, eta beragan pecataria gustijoc, ta gueldituten da seme barrijeen irudin [sic] bat eguinic curutziaren oñian. Cerubac pecatariei eutseen asserria jausten dà bere [con una indicación dice sobre la palabra *bere*: *ama seme oneen*] gañian, ta gueldituten gara [gara está escrita sobre otra palabra] gustijoc berari jaocazan atseguiñeen herederu edo jaubeguei. Justicia niretzat diño, ta misericordija, erruquia, ta biguntasuna nire semeentzat.

Ai Cac. eldu ete leite gueijagora ama baten amodijua bere semiac ganaco? Nos azartu zaatian [sic] guizona aimbeste mesede escatuten ceruco Erreguiñari? Ceruco Ainguerubac, cein pocic artuco cenduban zubec ceuben amatzat: baña ez, guizon pecatarijarentzat dauca amodijuaren señale miragarri au. Badà ò neure enzac. nun billatu daiquegu atseguiñic beronegan aurquituco ez dogunick? Cer erabilli lei guizona bere esturasunetan munduco aringarrijeen billa, izanic bere ama gozotasun, ta esperantza gueuria? Nun atseen daique obato gure viotz tristiac, amaric maiteenaren [mait... está escrito sobre *bigun...*] beso bigunetan baño? Batez bere zubec pecaturic lotsagarrijeen ondoren zabiltzanac, ostikopeturic ama maite onen atseguiñac, zarraturic ceuben belaarrijac bere dei ta erregu amarosuei, cer eguiten dozu aimbat lasterrean beragana biurtu baga? Cec atzeratuten zaitu orretaraco? Eguin dituzu eriotzaren batsuc, jausi zara milla pecatu ciquiñetan, galdu dozu sarri matrimo. leijaltasuna,

ibilli zara lapurreta andijetan. Jarraitu deutseezu ichu ichuric munduko arrotasunei, desprecijau dituzu *confen.* esanac, isildu dituzu pecatubac & & &.

Baña gustijac equizala, gura izan guenduzan bere semetzat artu, ta deituten deuscu gaur curutziaren oiñetic dolorez beteric. Cer achaquija euqui zinai, ezpada esatia ez dozula gura orain, ta pecatari gogortubac esango dabena, guero eguingo dozula? Beraz pecatari madaricatuba ez dozu gura orain, enzun ceure ama. Beraz ceruco gracija euqui gura dozu ceure zain nai dozun arte gustijan? Ô zori gaistoco guizona, cein deungaro aituten dozun cetan daguan ceruco erreguiñaren semetasuna! Ynfernuban dagozan guizon gustijac euqueen semetasun au, ta beragaitic dauquee pena gueijago. Ez eizu sinistu jarri zala gure amatzat, euqui guiñaijan lecu ta ocasinoe gueijago pecaturaco, luzaruago egon guiñaindezan pecatuban sarturic, ezpada euqui guiñaijan beragan pozgarrija, aimbat lasterrean baquetuteco Jangoicuagaz, ta erraztuteco onetaraco bidiac.

Ea bada *Cac.* ez eguizu luzatu eguneric egunera emon baga ceuben arimei, munduban izan daiqueen atseguiñic andijeen au. Esan eguizu David R. Santac. *dixi nunc caepi.* Orainch gura dot eguijjaz eguijjaz biurtu neure Jangoicuagana. Biurtu gura ditut aleguiñez inoren ondasun &. urratu adisquidetasun &. esan araco pecatu, isillic euqui dodana &. Etzungo nas pocic *confe.* erruquior baten oiñetan, ascaturic osaro neure gueistaquerija gustijac, bere esanac eguiteco asmo osuagaz. Zucenduco ditut cerrura neure viotzeco cizpurubac ama dolorezcuañ negarracaz bat eguiñic, biar ditudan gracija, ta laguntasunac jaristeco esperantza osuagaz; ta beti aguintauco dabeè onic aurrera nire arimaan Ama dolorezco, ta bere seme jesusec [la *c* final está escrita sobre *n*], emen lurrian vici nasan artian, gracijaren bidez, bat eguin gaitian guero ceruco amai bagaco glo-rijeetan; gustioi opa deutsudan moduban Aitiaren &. Amen.

Otro exhorto.

Ea bada *Cac.* nai dozu eguijjaz eguijjaz izan ama dolorezco onen seme ta alabaac? nai dozu izan bere dolore, ta peneen herederu, ta jaube? Ez bada gueijago gogortu viotzat [sic] gaur bere bitaartez icharo daiquezun ceruco gracijari. Ez ama maitia ez. Goitu ditu gure viotzac zure amodijuac. Ez dago, izan gura ez dabenic, zure seme edo alaba. Munduko gauza gustijac ichico ditugu, biar bada zugaitic. Aguindu eguizu nai dozuna, ta billatuko dituzu gugan servitzari lejalac. Baña jarri zaquiguz arren bitaartecotzat,

iaetsi daigun zure seme Jesuseganic, gueure orainguiñoco pecatubeen paracinoia, ta aurreruntian [sic] bere amodijuan irauteco gracia, izan gaitian zugaz batera Aita Cerucuarenac eternidade gustijan Amen.

(*) Cc. Ara emen gueure ama maitiaren amodijuaren irudin [sic] labur bat. Bere dolore gustieen artian ez dauca beste atseguiñic, gu bere seme, ta alabatzat artutia baño. Ucatuco deutsa iñoc viotza aimbeste amodijori? Galdu dau gugaitic bere erraijetaco seme laztana. Guelditu da barric, gente gustieen erreguiña. Negarrez dirauscu artu daigula gueure amatzat. Ó ceruco Ainguero ederrac! Noraaguiño igongo ez leuque zuben atseguiñac, enzungo baceuntzaz ceuben Erreguiñari, verva aiñ gozatsu, ta samurra? Cer dà bada Cc. eranzungo deutsadana, ceuben ama' izan gura daben emacume triste oni? Esango deutsat baietz. Baña aa! Biar bada ascoc guraco ez dau, ama aiñ garbijaren, seme alabei, jaoqueen vici modubari ez jarraitute arren. Esango deutsat ecetz. Ó dolore gustieen doloria! Jususen eriotzaco ezpatia baño oraiñdic mingochagua bere viotzarentzat.

Sartu zaite bada Cc. ceuben barruban: Ytandu eguijuzubee viotz orrei, cer diñueen: ta erabagui eguzu ceubec cer erantzun. Baña aa! Cembat beguitanduten jatazan oraiñ dabilzala ez da baida baten. Ezagututen dabee, Ynfernubac eurac icaratuteco gaucia dala, ceruco erreguiña bera, esquintzia guizonaren amatzat, ta, Jangoicuaren semiac pocic artu ebana, eurac gura ez izatia. Baña beste aldetic, eureen barruban oraiñ artian adorau ditubeen mundubaren ta araguijaren Ydolo falsuac, diadar eguiñgo deutsee beste Agustin bati leguez. *Dimitis ne nos?* Cer? oraiñguño aiñ ondo alcar artu, aimbeste maitetu, ta aiñ laster ichico gaituzu betico? Nic esango deutsa ascori lujurijac, sarri atseguiñiac emon, ta gozatu zaitut, ta orain ichico nozu aiñ errazto? *Dimitis ne nos?* Nic esango dau banidadiac, ecarri deutsudaz estimacione andijac, batu adisquide asco, ta ori dà emon gura deustazun esquerria. *Dimitis &.* Nic, esango deutsa ascori mundubac, orain artian ondo artu zaitut, aurreruntzian emongo deutsudaz oraindic ondasun gueijago, izango nas gustijau ceure ceuria, ez naguizu bada arren ichi.

Arima tristè, ta errucarri guerra vici onetan zabiltzanac. Ceñentzat gueldituco ete dà gaur zuben victoria? Erabaguiten badozu izatia oraindic mundubarenac. Ó seme galdubeen ama triste ta bacarra, celan gueldituten zara? Ai, ta noc icusi al leiquian zure viotzeco doloria! Ó Espiritu consoladore viotz gustieen jaubia! Esan lei ucatu deutsazuzala gaur beste atseguiñ gustijac ceure espresa maite oni. Ycusi dituzu beragan leijaltasunaren señaleric ciurrenac. Ez eguijuzu bada ucatu azquenic, bere bacartade tristetic, negarreco cizpurubacaz escatutem deutsun mesede' bacar

au. Betoz diño pecatarijac neure seme ta alabatzat. Ea bada pecatari gueisua, asco dà igues eguiteric oraiñ artian amaric maiteenari. Yzan arren zuben pecatubac areiac baño ugarijago, ez dozu iños oraiñ baño prestago billatuco ceruco gracia. Amaren amodijuac eztaldlico ditu [está tachada la palabra *laster*] zuben esquergabetasunac. Erabagui bada, erabagui, laster izatia, aurreruntzian eguijiaz beraic; emon eguijozu escatuten deutsun atseguiñ bacar au, bere bitaartesunagaz [sic] alcanzau daizuzan, iños amaituco ez diran cerucuac Amen.

Ea bada pecatari tristia. Erabagui arren gaurtic izatia benetan ama maite onen seme edo alabia. Beguira cein laster igaroten dan munduko gloria argala, ta cer icharoten jatzun bere ondoren. Ez bada galdu, gaur, ama maite onen bitaartez esquintzen jatsun misericordija!

Oh ama maitia! Eracutsi eguiyu arren gaur gugaz zure amatasuna. Egongo da emen, biar bada, pecatari triste lotsaz confesinoiac eguiten ditubaneen bat. Amistade, lagun chaar, ta ocasioian sarturco [sic] & Bandidade & Jaetsi eguijeezu gracia urratuteco lazu triste oneec, confesinoe on bat eguiteco, ta sendaro irauteco, erbeste triste onen ondoren cantau daijezan eternidadian zure misericordijeen alabantzaac Amen.

Es copia literal.

JON JOSEBA PUJANA.

2

[En la portada dice:] Soledad o Dolores de M.^a Santísima año 1843.

[Sobre el latín que viene a continuación hay una cruz pequeña].

*Ego plorans et oculus meus deducens lacrimas quia longe factus est a me consolator facti sunt Filii mei perdit *et p*rae*evaluit inimicus Jer. cap. II v. 16.**

¡Ce icuscarri tristia NA gaur A.edo G.guere beguien aurrian dacus-cuna Jangoico bateren Ama guizon da Angueruen atseguien poscarri da alegría neque pena da estutasunes beteta! tormentus beteta curuciaren oñian bere viotzac ganec eguingura deutsela! ¿Noc esango leuque Not [sic] neque ta atzacabes betata [sic] dagozanen consuelugarrija bera daguela consuelo esque? ¿Noc esango leuque mundu guztia contentus betete ebana

inguratuco ebala viotseco iluntasun da tristeciac cec poztu eceuquelaco? Ecin esan bagaric egon niteque gogua ilten jatala moteldu miña da icaraz neure zanac icusijagas Jangoicuaren Ama baten egoquera errcarrijagas [sic] au da icusijagas pozcarriren apur bat ezdaucala ez cerutic ez lurretic. Ycara onegas nundic asi enequijala nenguala ambeste penen artian etorri jatazan gogora Jeremias Profeta santuac Ama eguijas esan cituan verba onec *Ego plorans et oculus meus deducens lacrimas.* Nago begui bijetatic negarra daridela urrun da niganic consolagarija galdu dira nire semiac da contrarijuac urten dau beriagaz *facti sunt fili mei perdit *et p*raevaluit inimicus.** Pensau baño ezdaucazu NA cec animau neunquian icusiric curuce orretan cerutic jatsi zan Jangoicuaren semia. Belena muxica gozuaquin etorri jacazan Angueruac ez dira orain aguertuten Calvarijoco mendira leen baquia predicau ebenac dagoz orain negarres. Cec gogortuten daben guejago [sic] neure viotza da icustia [está repetida la palabra *icustia*] Jesus crucificaduaren Ama curuciaren ofián negarra darijola inundic pocic aurquitu ecin dabelaco da motel motelic dinuala *longe factus est ame Consolator!* Ychi eguidazu bada arren cerura beguijac jaso da galdeñu dajodian Aita Eternuari: ¡Ayta adoragarrija! ¿Etzara Ceu Daniel Leoien lezan consolau cenduana Profeta bat bialduta? ¿Etzara Ceu Elias Jose ta beste ambeste justo poztu dozucena? Baña cer dinot? Etzara Ceu ceure Seme J.C.Getsemanico hortuco estutasun da tristezan Angueru battegaz consolau cenduana? Bada celan orain icusiric Ceure escuetatic urten daben Criaturaric santa miragarrinen [sic] negarrac bialdutenez deutzasu consolidadore bat? Criatura ori da Ceure seme Jesus consolau ta berotu ebana bere beso artian jayozaneco bera Herodesen atzamarretatic gorde ebana erri erbestian ezagutu da amodijoric andijenagaz aciebana ezdeutso inos emon sentimenturic ez atzacaberik! ¡Celan bada erruquituen etzara beragaz dinuanian *longe factus est ame consolator!* ¡Igaz eguidau niganic consolagarijac!*

Emenche bai itandu guinaiquiola Ama tristiorri Jeremias Profeta Santuagas *Cui comparabo te vel cui asimilabo te Filia Jerusalem!* Siongo alabia nor comparau leique Ceure estutasun orretan? ¿Comparau neique Jacob Patriarquiagaz bere semia pistija gogorrac jaebala entsutian bere soneco guztiac urratu da cilicios beteric ambeste negar eguin ebanian? ¿Comparau leique Ama laztana lurrian Eli sacerdotiagaz bere enemiguen escuetan guelditu zala Testamento Arquia entzun ebanian? *Cui comparabo te!* ¿Comparau leique Davidegaz bere seme Absolonem eriotsia entsutian [hay una palabra tachada] bere magestade da anditasun guztiac negarres da diadarres esaten ebanian amaitu ciriala bere victoria guztiac? Ez NA Ez Jacob bacarric icusi cituan bere seme Joseren jancijac zatituta

¿baña Marijac dacuz bere errayetaco semia zatitu apurtu da odolduta curuce baten.bacarric sentietan eban Eli Sacerdotiac JC irudija eucan arquia preso ta lotuta icustia.Marijac barres sentietan ditu Jesucristo berberaren neque pena pasinoe da eriotsia.Davidec bacarric negar eguiten dau seme guesto oquer da lotsa bagaco baten eriotsia. ¿Baña Marijac munduan inos icusidan semeric manso da humildiena gaitic.

Guraso bigun da amodijos betiac gogora ecarrizus instate [sic] onetan ceuen semien eriotsa ta desgracijetan sentido dozusan pena guztiac da beguiratu egizku igual badira Ama triste onec bere Semien curucien oñian dauquezanaquin. Ycosten da Ama bat Salomonen aurrian bere errayetaco Semia zati bijan icusteco bidian. Negar eguin da tristezas beteten da Sunamitis ederra bere bularren contra bere bularren contra [se repite *bere bularren contra*] bere semia iltēm [sic] icusijagas. Ecin guejago cispuru ta negarracas eracusten dau Ana Tobiasen [no se entiende bien el final de la palabra, pues hay algo tachado. Después hay una palabra tachada] Ama bere semien faltiac da ecin inundic consueloric artun [sic] dau etsera eterri artian. Baña pena neque da estutasun onec ecer ezdira Marijac curucien oñian igaro cituanac guri adierasoten emoteco.Salomonec juzgau eban andriac bere aldera ensuneban sentenciā bana Marijac entsuten dau bere semien contra sentenciā gogor da cruela.Sunamitis ederrac beste consueloric euqui ez arren logretan dau bere beso artian bere semia iltēm [sic] icustia baña Marijac dacuz lapur biren erdian curuceco urcamendi lotsagarrijan bere viotseco prenda maitia.Anac bacarric negar eguiten deutso campoti dan Semiari Marija curucian ilda dacuzan Seme maite da onenari. ¿Cui comparabo te? Bacarric topau leique comparacinoe labur bat Marijaren dolore edo soledadia eracusteco araco ainchinaco demporan munduen castiguraco Jangoicuac bialduxituan ojol [sic] icarragarietan [sic] bada cerren erreca ta elementu guztiac guizona itoteco batu cirian leguez alainche batucirian Marijegana neque gach pena ta sentimentu guztiac estura ta pena andijetan ipinteco. Bai NA andija ta neurri baguia da Marijaren pena ta sentimentua bere semia guere amodijua gaitic vilosic curuce orrettan ilda icustia zauritu ta zatituta baña sentigarrijagua da berezat icustia neque pena eriotza itzala gugaitic igaro arren galduco dala guizona da utengo dabela beriagaz enemiguac.Auxē da bere pena ta dolorien artian bere viotza zatitu ta erdibituren dabena da bere doloriac aumentetan dituana; da ara emen neure sermoia.

Alan bada neure cer esan guztia izango da gaur ceuen beguijen aurrian ipintia celan aurquituten dan Jesusen Ama maitia curucien oñian consuelo apur bat bagaric claru daquijelaco galduco jacobala bere semezat emon jacazan ambeste Adanan seme ta alaba ta diabruac egungo dituala caltiac

facti sunt fili mei perditi. Pena ta sentimentu onen golpiac claru ezagutu cituan Simeon Santuac Jangoicuaren seme bacarra Templuan presentau ebanian Virgina Santisimiak verba oriec esan eutzasanian *tuam ipsius animam pertransibit gladius* sartu gaitian bada gu bere sentimentu onetan Baña Simeonegas dolores izan baño lengano [sic] esan dayogun angueruas Ave Maria.

Thema ut supra

Gutzis andi ta esagutu ecin leiquezanac izan cirian Jangoicuac bere Amazat escogidu izan ebanenzat egun cituan mirarijac alde batetic jausten dira bere viotsera Jangoicuaren irutz gozuac arima guztia gozos beteten deutzenac. Esan lei beste aldetic eseutsela munduan emon nai contenturic. Aguertutem jaco Anguerua barri onac emoten dirautsela bere Semia izango dala mundo salvadoria. ¿Ce barri obaric berezat? ¿Bana [sic] ce contentua sortu biar eceban bere viotsian jaquit [sic] guizonari jatorcola osasuna? Baña dempora guichiraco da contentu au laster mingoztutem jacon Simeonec beraga [sic] biurturic dirautsesan verbacaz dirautsela bere Seme Jesus ipinita iguala ascon oneraco da ascon charreraco da agaitic espata zorrozac igaroco ebala bere arimia. Angueruac dirautso bere semiac erreinuaco dabela betico Jacob echian da gaur dacuz Calvarijoco mendian alzeten deutsela Jacoboren [sic] ehecuac Tronu iccaragarri bat urrezco coroien ordes aranzascua aranzac garutaguino [sic] sarcen deutsezala da aguinte guztia guenduteco escuac josiric ipiten [sic] dabela Angueruac dirautso bere semia izango dala deitua Jangoicuaren Semia, bana [sic] gaur entzuten dau dirautsela Jangoicuaren Semia bazara jatsizaite curucetic. Angueruac esateutzan doncella eder oni Jangoicuaren Ama izangozala da gaur bere seme laztana beraganic alde eguiteco orduan nos amodijosco verbac entzun biar cituan bere aotic, dirautso sicut sicuric; ¡Andria ara or Ceure Semia! *Mulier Ecce Filius tus,* ¡Ay ene Erredentore maitia! ¿Etzara Ceu Ysaiasec esaneban leguez verbari [sic] eguingo etsenduana? ¿Etzara Ceu Sn. Pedro Apostoluac beguiracune bategaz irabaci cenduana? ¿Etzara Ceu Samariaco adultera Maria Madalena escandalosia arpegui bigun bategaz artu cenduzana? ¡Ceuzara bai da ez besteric araco gurazo samurra besuac zabalic artu dozuna Seme ondatzaile edo prodigua viotz damutuacas etorri jatsucenac! ¿ta gordeco dituzu muquertasunac ta verba otzac inos bere ichi ezdeutsun Ceure Ama inocente da izan aldeitequian santa da bigunenzat? ¿Eta nos? Ceure beguiracune amorosuac da bervaric consolagarrijenac entsun biar cituanian Nazareten urteten dau esateco moduan Jangoicuaren

seme bacarrac bere Aytaren viotsetic bilatutera Virgina zorijoneco onen sabel garbia bere bularra da besuac nun gozatuten zan atseguintasun andiegaz da gaur Calvarijuan gracijazco verba entzun biarrian dacus [no se lee con claridad *dacus*] amodijo guejaogas tratetan dituala bere enemiguac da etchacola [sic] beste mesederic eguiten Ama oni ezpabere bere besuetara erutia [sic] Seme ilen gorputza odoldua da zatitua! O Ama penas betia! ¿ez da ceuretzat izango consuelo piscabat? ¿Baña beste misterijo bat dauque Amavirginiaaren negar da inundic pocic ecin artuac? bere negar da pena poz bagacuac diriala dino bere Seme Jesusec ambeste pena da tormentu igaro ezquiero galdu da ondatuten diralaco betico semesat emon jacozanac da Diabruac urten dabela beriagaz. *Yd circo ego plorans et oculus meus deducens lacrimas Quia facti sunt fili mei perditi et praevaluit inimicus.*

Guztioc daquigu cembat ondasun da provechu etorri jacon munduari JC eriotsatic emetic esan leique ce bere pena andijen artian euqui biar ebala Ama Virginiac poz andi bat ambeste ondazun da provechu icusijagaz. ¿Ce poza artu biar eceban acordetiagaz celan baquetuco zan Ayta Eternuaren aseria? ¿Ce poza jaquinagaz Limboco atiac edeguitera juezala da an egozan arima justuac igongo ebela ordu artian zarraturic egon cirian ceruetara? ¿Ce contentua gomuntetigas Apostoluac JC icenian eguingo cituen milagruc da gracijaco leguera ecarrico cituenacaz? ¿Ycusi euquian viotseco contentu bagaric Diabruen buru ausi ta da bere escubide ta aguiente [sic] quenduta infernuco Principia? ¿Ce contentua artuco eceban ambeste milla martiri aurretijas amodijoric andijenagaz emongo ebenac euren viciencia bere Semia leguez? ambeste Virgina garbi angueruen vicisia eguingo ebena [sic]. ¿Ce negar gozuac bota biar etcituan icusijagas confesinoco sacramentuagaz garbituco cirian pecatarijacas da Altaraco bildos inocentienagaz zurituco cirienac? ¡Ay! Virgina Marija esango neutzan an egon banitz cerijacos orrec negarroc da cispuruoc cetaco dinozu consueluac igues eguiñadela zuganic? ¿Gu ezgaituzu maite? ¿Etzaitue poztutene gugana etorri dirian mesedia ceure semien lepotic izandabere? ¿Cer eguingo guenduan Adanen Seme tristio Ceure seme Jesusec vicija emon ezpaleu? icusico guenduzusan betico galdua. Consolau zaite bada sicutu eguiuzus Ceure beguijetaco negarroc da alegrau zaite guere onagaz. Baña ¡Ah ce errazoe utsac da alperrac onec poztuteco Ama Virginiaaren viotz tristezas betia! mingostuten deutso bere contentua guztia curucien ofian darabilen pensamentu larrijac! ¡Ay ene tristia! Cinuan YI niire [sic] Seme Jesus guizori guztiac salvau citian da guero condenau biar dabela betico ambeste zori gaistoccoc! ¡Ycusi emen odola darijola Jesus da ecer eguiñezpaleu leguez esquerriek emongo ezdeutsela guizonic quejenac!

Loric ecin eguin badau seme galduen Aitac bere semia galduric jabilcon artian da beste semien ontasunac arindu ecin badau bere pena ta sentimentua. ¿Ce aurquituco dau guizonen Ama onec ambeste seme galdua icusita. Arzain edo Pastore bat estuten bada ardi bat edo bi aldendu jacozañaco. ¿Ce estutasuna artuco ecevan bere viotzac icustian ambeste seme JC arteguitic aldendu da infernuco otsuen atsamarretan? Ycosten cituan Madalenien moduco nescatilla batsuc etorrico ciriala pecatuen damu benetacuagaz Jesucristoren oñetara, baña dacuz beste nescatilla asco guejago jaramonic eguingo ezdeutsenac bere semien dei amorosuari da buruan vleric baño pecatu guejagogas egongo cirianac da beti pecatuan atsituric ilgo cirianac. Ycosten cituan Zaqueo da tratulari char batzuc ostua guejagogas biurtuco ebenac baña baita beste tratulari batzuc aleguin guztia ostuko ebenac da deunguia onzat salduco ebenac? Ycosten evan zurituco jacozañalo guizonari buruko uliac chimurtu arpeguico azala ecebala euquico aguinteric gaztien artian ibelteco baña alambere beti bere pensamentuac izango ciriala deungac bere verbac astunac da loyac bere ecanduac guztiac gaztetasunecuac da beti onec jarraituco eutsela sepulturara artian *facti sunt fili mei perditii.* &.

¡O pena icagarrija! Santu eta Santa asco ilaguinic guelditu badira entsunagaz arima bat galdu dala. ¿Celan gueldituco zan edo ce viotseco damutasuna artuco ecevan Ama Virginiac curucien ofian claru ecusanian cer eguingo eben guizonac da cembat arimac gal [pasa a otra página y se repite la sílaba gal] galdu biar eben. Icosten eban benic bein an egozanac etcituela edegui gura beguijac eta Jesusi erijken odola artu ebela euren ganian bere erritarrac da augaitic etorrico jacuen castigua. Ycosten eban celan Erromatarrac etorrico cirian Jerusalena da celan ilgocituen millinoe [sic] bat andra ta guizon da guejago. Bere gau ta eguneco janarija izangozala negarra icusijagas bere nacinoe da gentien galdu biarra. *Plorabo die ac nocte imperfectos populi mei!* ¡O nire viotseco penia! esango eban ¡O estutazuna! ta dolore pare baguia! Ynfernua beteta leguez dacuzt neure semien odolagas irabacitaco arimacaz. *Praevaluit inimicus.* Estutasun onetan eguala enzungo eban cirautcela bere Semiac. *Noli fleere super me.* Ama viotsecua eceguizu nigaitic negarric eguin eguizu Jerusalengo seme alabac gaitic, nire eriotsiagaz valijau gura ezdabenac gaitic euren pecatu ta maldadiacas barriro curucian ipinico nabenac gaitic ute [sic] osuetan ni azturic pecatuetan da peligruetan sarturic dagozanagaític, nire gorputz da odola demoni: nuen vici lecua dan arima loi da atsituan artuco dabenac gaitic da neure Religinoe santuan charto vicico dirianac gaitic onexec gaitic negar eguizu sed super vos flecte.

Bai NA onejec gaitic gura dau negar eguin daijan bere ama maitiac curuciaren ofian ezdau gura negar eguin daijan ogueta amairu urtian mundu onetan igaro ditu neque penac da trabajiac gaitic bere pasinoeco ichasuan pasau dirian tormentuac gaitic ezpada pecatuen cateietac [sic] pocic dagozanac araguijaren cateia senduacaz lotu ta ascatu nai ezdabenac gaitic Diabruaren azpitic urten nai ezdabenac gaitic euren bila artu ci-tuan nequiac estimau biarrian bere escuetati igues eguingo deutsenac gaitic. ¡Ay Ama tristia! Ce andija izango zan Ceure penia icustian guc eguingo guenduan vici modu guestua Bay Ama consuelo baguia, bai orduanche ecusan Calvarico [sic] mendijan guc guere vici guztijan eguingo guenduzan pecaturic astunenac banan banan guztiac icusi cituan. Ycussen cituan ambeste arima diabrua baño ezainaguac pecatuen atsa eriuela Ecusan ni izango nizala bere Semien Sacerdote char bat humildade baguia oracinoeraco da beste gauza esan ecin neiquijenac. Ycussen cituan naita nai ez guizonac eguingo cituen lapurreta ta trampa da engañuac. Garizuma onetan eguingo cirian sacrificijuac da gaurric aurrera eguingo dirianac guizonac erabilico cituen ausi guesto ta oquerac. Ycuscarri loi onec ez icustiarren estalduco eban bere arpeguija ojal edo veluagaz lotsa arren David esan eban leguez: *Confusio operuit animam meam* penien penas aztutarren biurtuko cituan bere beguijac bere Seme ta Jangoicuaga. Baña ¡Ah! ¿lausotuten [no se entiende bien en el original la primera sílaba] jacos bere beguijac. ¿Eta ce consuelo aurquitu euquian bere Semiagan bijac pena modu bategaz begozan? Entsutzen eban cirautsela Ayta Eternuari Ayta: cegaitic aztu ta ichi nozu andic laster icusi evan beguijac ichi burua macurtu da ascaneco [sic] arnasia emoten. ¡O pena consuelo baguia! galdu nire semia arimac pecatutic ateratarren da onec ez urten gura inundic bere! Emon Jesusec eban odol guztia pecatua zapaldutiarren da icusiric bere Amac gueituagas juango ciriala pecatuac! *facti sunt filii mei perditii* & pena onegaz eztuturic ascatu gura dau negarra darijola esanagaz. Jauna: icusi eguizu nire estutasuna eta larritasuna bada enemiguac urten dau beriagaz. *Vide Domine afflictionem meam quoniam erectus est inimicus!*

¡Ay NA uste neban nic orain artian icusi bacendu Virginien imagina ori guizon arima bacuen osticopian bigunduco lizatequezala zuen errayac da negarres espata zorrocen artian sartuco ciniala ataratiarren escu sacrilegio [sic] aetatic prenda ain estimagarrija. Baña orainche daquit ecerbere eguingo etsenduquiala bada icusiric eitem [sic] desprecioric andijenac Ama virginiaaren irudi edo Seme viotsecuari gugaitic emoten daben vicitsia estimau, nai ez da osticopian darabizu bere odola penien apur bagaric. ¡Ah! ecin icusi dozu chacur bat alarauca aranzabat sartu jacolaco

da bertati zuaz ataretara ¿da egongo zara ardura bagaric pecatuen aranzacas. Ama virginien viotza erdibituta da ez atara gura bere viotza bateric bestera igaro deutzan espatia?

¡Ay Jangoicuaren Ama ona! ¡Ay eta adieraso albaneizu neure damua ambeste penagaz ceu icusita! galarazo albaneiz arima baten pecatuac! Ceuc daquizu [sic] ondo diadar eguiten deutsedala erruquituten jatazala amenacetan dodazala ceure Semien aserriagas da eguiten dodala aleguin guztia arguituteco itzuac entsun eraiteco gorrai bigunduteco viotz gogorrac da Ceu consoletaco. ¿Baña cetaraco atara dot? Etorrico dira ceure besuetara ezaguturic ce deungaro tratau daben ceure Semia contentau dala uste dau pecatuagaz da egunen damuagaz arinduko dituala ceure penac. ¿Ezeditu ondo ezagututen pasinoeco penac munduco olganza da zoraquerijac buruan dauquezala. Eguin begui bada naidabena esan bequijue esan ala da orrec negarracas nastautaco berba [Después de la palabra *berba* está semitachado *caz.*] amorosuacaz ezdituzu ataraco euren vici modu guestotic. Ez daucat nic esperanzaric. Urte asco da Jangoicuac convidetan dituala bere misericordijagaz. Sarri entzuten ditue verba on asco Predicadore da Confesoren aotic Vicitzac beti dira lenac bayta izango bere.

¿Baña cec sartu nau ni ceure misericordijari neurrija ipiten? [sic]. ¿Noc daqui gaur Judic baño Virgina poderosuaonec ecarrico ete daben osasuna erri onetara? ¿Noc daqui orain artian Diabruaren aspijan vici izan dirianac Jangoicuaren libertadian paraco [sic] dirian? ¿Noc daqui pecatuco ocasinoe loyan orain artian vici izan dirianac sacrilegijuac eguiten gaurric aurrera ocasinoe guztiac ichi da parauco dirian Ceruco bidian? ¿Noc daqui orain artian charto confesau da comulguetan izan dirianac gaurric aurrera garbitucoituela euren arimac Jesusen odolian? ¡Ay Jesus Crucificaduren Ama! Ceuc daquizu ondo etzaite aserratu eguitera noyan escabidia gaitic. Ceuc daquizu ondo cemba [sic] alcineyan etzaizu badea gura izan galduidein arima bat da principalmente Eleysa onetan daguanic Ezdeutazu [sic] eguingo gracijs au. ¿Baña cerda Jesus onac gura izatia gueuc gura ezzpadogu? Ara cer dinuan Spiritu Santuac. *Gemitus Matris tuae* etsaitiela gogortu ceure Amaren negarretara. Consolau eguizu bere pena da dolorietan eguizu [Al margen de la última sílaba *zu*, con la cual comienza la línea, dice: *con nueva vida*] beregas bertati tratu bat zuec ez gueigo [sic] ofendietaco Jesus maitia berac lagundu zuri ceure estutasun guztietan bago [sic] inor zuen artian tratu au eguiu [Al margen de la palabra *eguiu* hay una nota que dice: *viciza barri bat artuaas*] ezdabcenic Ez arren NA ezaqutu [sic] daiguzan guere pecatuac da euraquín emon

deutsaguzan sentimentu andijac emetic aurrera jarraitu dayogun berac era-custen deucum [sic] bidari vici gaitian Jesusec irabaci deusun [sic] gracijan da alcanzau daygun Cerua. Amen.

O. S. C. S. R. E.

Es copia literal

JON JOSEBA PUJANA.

3

Jesu Christoren Viotza da dino beste guizon veneragarri batec ez bacarric virtute guztien egoteguija, baitabere gracia guztien Yturburuba, nun arquitu ta gordeetan dirian virtute artu dirianac. Ce eraspen ta devonicua [sic] euqui biar ezteutsagu Viotz sagradu oni? Celan juango ezgachacoz amorez urturic arima garbijacaz! Ai elduco baguiña ezpan egarberaacadit turri onetaco ur ederretara! eta celan ilgo lichaquegun lurreco cinguira lojetaco ur ustelen egarrija! Ai elduco baguiña beragana gueure premina guztietan, ta ce laguntasun andijagaz urtengo guenduquian!

Iracurten da ostera Santa Metildesen vicitzan aguertu jacola bein Jesus maitia esataco: Amau naguizu osoz ta aldozun aleguin guztiaz. Baña billatu eguzu amodio oso ta neurri bagaco au aldaraco Sacramentuban nun emoten dan amodijuaren bai edo prenda ederra. Emen dago vicitzarako laguntasun osua, ta eriotzarako atseguiun ecinesan bestecua bera maite izan dabeenentzat. Enzun cituban une atan amore garbico verba oneec icusi zan beteric Jesusen viotzaren devocinoez, cefiegandic artu cituban aimbeste mesede, ta gracia, cein da dinuan Santiac berac contau biar balitu artu citubana ezlitzatila asco Liburu andi bat.

Baña devocino onen bando ezpalegoz Santuben esanac, ta Jesu Christoc berac euren arteco ascori eracutsia, noc esan lei errazoia galdu ez-padau eztala vide onecua? Jesusen devocinoia da aguertutia ta billatutia amodijuamodijo lecuric adjutubenian; dago bacochac aleguiñaz deseguitia bere amodijuari Sacramentu santu onetan emon jacazan atsacaba ta egun jacazan vide baguiac alan heregen celan cristinau dongueen aldetic. Noc esan ceimtaigue [sic] cembat atzetasun, cembat jararamon [sic] ta ezardura daruazan. Ceimbat dabilz [Al margen hay una nota que dice: Sn Juan Bta.] iguesi urte guztian carga andi bat ezarten baleutse leguez beragana

eldutia? Ah Christinau esquer galducua! Cec zarabilz iguesi. Galdubac dira Jauna esateutsan Profeta santu batec zuganic aldeguiten dabeenac. *Ecce qui se elongant a te peribunt.* Cer dinozu? Etxariala ondo vici sarrijago elduteco; nai cenduquiala on izan baña etxariala. Eztozula dongaro comulgau gura. Ondo dinozu [al margen hay una nota que dice: *Simil del enfermo*], baña gaisqui eraatzi [sic]. Cerc eragozten deutzu on izatia? Ce atseren gueiago arquituten dozu pecatuz cargaurico vicitzan garbi ta zucen baten baño? Ai bacenqui ce arimaco atserenac, ce olgura ta gozamen, ce viotz ascatute vr gozua darijuenac, ce negar malco gori atzeguintsabac igaro daruezan ondo vici izanda duazanac Jesusen Convite onetara! Elzaquioz bada amorez, ta arguituco zaitu. *Accedite ad eum et illuminamini.* Artu ta probau eguizu Ceruco erregalu Ainguerubac emongo balichaque artuco leuquena ta icusico dozu cein gozatsuba dan. *Omne delectamentum &a.*

Eztot inos orrelango atseguinic artu eldu nasanetan? Ah Jesusen maitatzalliac erdu ona, esango deutsut San Agustinegaz, erdu ta esan eguidazu eguiua dan edo ez gozo gozua dala Ceruco erregalu: Baña deituten badeutset viotz amore on baguia, atzeca Jesusegaz dabilznanai, eztabe aituco cer dinodan. *Si autem frido loquar nescit quid dicam.*

Bada cer, vicitzan indarrian duazanai, muquertasuna baño eracusten ezteutseenai, juango jaquee Jesus viotza edeguita consoletara penaac arindutera, ta vidē eternidadecuan lagundutera?

Deitu eutsan Samuel difuntubari Saul erregue concienciaco estubac larri erabilli eban dempora baten. Vici izan zan artian conseju eder asco emoeutsazan Samuelec, ta onen vitartez jaso eban erreguetasunera. Etzituban jarraitu onen consejubac, ebillen Saul ilteco arriscu andietan guerraco demporan. Ecusan ernegauta bere buruba conciencia donguiaren zaunca issiltzaquia, ta billatu eban andra encantadore bat viztu eguijan Samuel onec ateraco ebalaco ustiaz esturati. Vrteeban Samuelec sepulturati, zucéndu zan Saulen billa, jarri jacon aurrian, ta dirautso sicuti sicuti ta difuntu batec esan daiquezan verba itzaltsabacaz. Saul, cegaiti galerazo deustazu illen toquijan neucan baquia. Cetaco viztutera obligau nozu? *Quare inquietasti me ut suscitarer.* Cer gura dozu nire aoti orain enzun? Bijar Zu ta ni lecu baten batuco gariala. Pensau baño eztaucazu celan zurtuco jacozan Sauli buruko uliac, izoztu viotzeco odola alaco difuntu santu baten aotic alango sentencija enzuebanian. Alan il zan Saul erneguban ondu baga.

Ah Christinaubac! Orain Jesusec emoten deuscuz milla modutara conseju eder asco ondo vici gaitian. Dirauscu bere viotza edeguita eldu gaquiozala amorez, ta prest ezpagagoz garbitu gaitiala penitencijaco iturri-

ja, [sic] Samuelec Sauli vicitzan emoeutsan baño bazcari obiagua esquin-tzen deuscu. Baña cer jazoten da? Darraiogu gueure moduco vicitziari, atzetutene ditugu bere convite onac, eztogu uste pecatuban baño bestetan atseguiinic daguala... Alan daruaguz egunac Saulec leguez otuten jacuna eguiten; nos edo nos badator ilteco epia. Larritutene gara; edo gueuc escuta edo inoren aguinduz badua Sacerdotiac [sic] ateraten Jesus sagrarijoco sepulturati. Dua gusto baga gaiso conciencia donguiac estutubagana. Sartutene da guelan, eztau inoc enzuten daben verbaric esaten; baña ah bai ta celan verba eguin baleu esango leuquian. *Quare inquietasti.* Cetaco quen-du deustazu Sagrarijoco sepulturan neukan baquia. An nenguan ni Ainguerubac lagun eguiteustela... *Quare inquietasti me.* Cer gura dozu enzun niganic. Etzara zu... Biar, gaur edo laster alcarregaz batuco gara, ni zure Juez izatera, ta zu contu emotera. O trance estuba!

Ai Jesus maite, onegui oneguija. Berorrec gura guenduquez emorez li-catut gure viotzac. Berori eguiñ da guretzat Bildots zuri guc jan daigun ill ebena, ta amorezco subac erre dabena. Baña cein alperric dendatutene dan! Aguertu eban ta zabaldutu bere Viotzaren devocinua deseguin guenguizan negar ta penaz berorren Sacramentubari eguiten deutseezan ta eguiñ deutseezan injurijac Judegu ta herege sinistu gura eztabeanac berorrec aimbeste dai-quianic edo aimbeste gura izan leusquegunic. Geu [sic] gueu gara gueitutene ditugunac deseguin biarrian berorren videgabiac [sic]; edo gabilcoz atzeca iguesi edo guacoz viotz liquinacaz! Baldin osagarrijac biurtutene baditugu satarri [sic] edo pozoe gaisto eguitera, ce vide dauca gure viotzac beretuco [sic]. Ah Jauna! Orra elduric demporac ceñetan amatau dan berorren amodijua, ceñetan barre eguiten jakan len ain zabalduba eguan devocino ori, ceñetan dagozan baztartuta berorren servitzarijac, ta buru jasuacaz dongaac. Arren argitu &a.

Es copia literal.
XABIER AMURIZA

Tu es qui venturus es, an allium expectamus? Math. C. II.

O Zorrioneco Velen! eta ze pozic zengozañ enzuten Profeta S. esaten eusubeenian zeure erribarruban Jaico zala Munduko Salvagillia, Aita eter-nuaren seme bacarra, Jangoicoguizona? O ze dichas vetiac izango guñian gu izan balebe gueure erriiac fortuna ori? O Augustoren dempora ederra!

eta ze pozic egongoguiñian gu, alcanzau bagendu zu icustia! Arzaiñac poztu bazirian guztiz, zeruco señalviaquin, ze consuelo parebagua, euco ez eban gure Viiozac Ycusita aita eternuaren seme bacarra gueure artian guizon egunda? Baña ez daucagu ze tristetu ez icusi arren dempora areec, ez daucagu zer desiau dempora areetan munduban egotia; zeren orainche, dempora oneetan, Jaiotenda Jesus gueure viiozeten modu barriian, onera pate bagacuac dacarzala zerutic gurezat: Onetaraco Eleiza S. combideetan gaitu dempora santu onetan prestau daiguzala gueure viiozac Jesu Christoren Jaiozaraco, artu daigun gueure arimeetan Jesus ceruco onera guztiiequin.

Guztiioc daquigu, etorten danian Emperadore, Erregue, edo Veste onelaco personaren bat vere ziudade, edo erriren batera, eguin oidirian prevenziñoiac erri atan, imindeco eureen Jaun eta Jaubiari echeric ede-reна, Jarbitasunic [sic] andiienagaz, Alajaric Valiioso, eta estimaciñoeric andiinequaquin: eta onelan eguiten ezpadabe, edo dira gente zoro, esquer gueistocuac eureen Jaubiarenzat, edo ez dabee ezaututen eureen Jauna: Denpora onetanche gagoz Eleiza S. dirauscunez, Vertati Jatorcu Gueure Emperadore, Gueure Jaube, eta Jaun Jesuchristo gu oneraz, eta mesedez Veteetara; Jaquin viardoguna orain da, ze modutan prestau viardeusagun vere egonlecuba: Davidec esaten ebanez, Batu arren mundoco zidar, urre, eta arri Valiioso guztiiac, ez da ezer, Jangoicuaren egonlecuba imindeco viardan moduban, zeren oneec dira guizoneen adornubac, Baña Jangoicuari prestau viardeusagun lecuba, da arimia: Presteetaco arimia viardan moduban; eta gueure Jangoicuari vere egonlecuba; gogoratuten deuscu Eleiza S. ez gaitiala izan Judegubeen moducuac, zeinzuc Belenen ez euseen emongura izan ez echeetan lecuric, ez tellaperic; ez gaitiala izan ain esquer gueistocuac: Belengo gente gogorra! Ez da ori aimbeste Profetac opa izan deusuben anditasuna, zeubec oneraz veteetan datorrena, zeruco vidia eracusten datorrena, Jangoicua guizona? aïñ esquer gueistocuac izango zara? [sic] ez deusazu Prestauco zeuben artian lecu onbat Mesias icharotenzagozanari? Bafia ez dago zer miraritu, zeren gueuc euquiiagaz arguitasun gueiago Judatarrac baño prestetean deusagu Jesus maitiari lecu loiiagua, pecatubetati garbitu bagaric arimia, prestau daiguzan gueure arimaac viardan moduban Jesus erreziebietaco. [sic]

Exodoco 25 capituluban eracusi eban Moisесec zer modutan imini, eta prestau viarcozan Jangoicuaren egonlecu, eta templuba; lelengo aguindu eban eguin zedilla altara sacrificiuetacua; guero lecuba garbituteco bacochac vere loiiac; guero argui iriciuac; guero inzensua, eta asquenic Maiia: oneec euroc, edo esangura dabeenac eguin viarditugu prestetaco geure [sic] viiozac, eta arimaac Jesus erreziebietaco: Lelengo eguin viardoguna da

sacrificiio altaria; auda samindu gueure viioza Jangoicua ofendidu do-gulaco pecatubequin; mortificau, eta eguin penitenciia guere [sic] gorpuz, eta sentidu guztietan Jangoicuaren Justiciia vigundu dedin; ez Jaramon mundubari, eta verac opa deusczan guzur, eta falsedadai; lelengo guztiz sacrificadu oitura gueistuac, eta viurtu Jangoicuagana parca escatuten eguin ditugun gueistaqueria guztiiac gaiti: ze exemplu ona daucagun David erregue sant. zeinec ichiric Saul, eta vere Palaciua, Juan zan Belengo sacrificiiora: zer izango ete zan Jaquin baleu, Jaiozala an aita Eternuaren seme bacarra? Zoratuco jacon, zurturic queratuko zan pozaren pozes; eta guc onera onegaz, ez deusaguz sacrificauco mundo gauza gauztiac [sic] Jaun oni? Saminduco ez dogu gueure viioza, eta eguin penitenciia eguin ditugun pecatubac gaiti? Eleiza S. gueure ama amodioric andienecuac diadar eguiten deuscu ez gaitiala izan Judatarrac leguez, esquer gueistocuac, sacrificiioau eguin daigula viioz guzti... [La *i* termina en el borde de la parte baja de la página, cuya parte está un poco desgastada].

Vigarren eguin viardabena C. dempora onetan da, garbitu ondo vere Conciencia, Sacramento S. Penitenciacuan, presteetaco egon lecu garbiia Mesias zerucuari, orregaiti emoten deuscz Eleiza S. lau aste avendu S. prestau gaitian viardan moduban Jesu Christoren Jaiozarako: esaten eusan Jangoicuac Jacob P. S., igon eguizu Betel derichen lecura; eguin egui [sic] eguizu an nirezat Altaria; Vertatic Jacoc dei eguin eusan vere gente guztiiari, aguindu euseen, Vota eguiiezala Jangoico falso guztiiac, quendu eguiiezala erroba lojiac, eta Janzi garbiac; Modu onetan C. dei eguiten deusee Jangoicuac, zuzendu daiiela eureen Viiozeco altaria veragana; Vatu daiiezala sentidu guztiiac, Entendimentuba, Borondatia, Memoriia, icusi ziaz eureen conziencia, eta badauquee loiric, garbitu daiiela ondo Jesus Maitia arzeeco.

Yrugarren euqui viardau C. candela iriziua, au da Vere consideracioneco arguitasuna, gogoratuteco ze mesede parevagacula eguin Jacon C., dempora onetan, zeñietan etorri zan Aita eternuaren Seme Vacarra Mundura, guizona errescateetara; consideretan dabela, Zein dan Mesede au egui euscuna? Jangoicuaren semia: ez eban gura izan Viraldu Angue-rubac guizona errescateetara, vera etorriزان enpersona: Nundi dator? Zerubetati, Aita veticuaren ondotik, zeruko tronutic. Nora dator? Misericordia, eta negarrez veterico lecu onetara: Nogana dator? Adanen seme desterraduvetara, Paraisotic, botata dagozanetara; Vere arerrioric, esquer gueistocuenetara; ze modutan dator? izanic Jauzaguztiien [sic] eguillia, arturic esclabuen Yrudina: Zetara dator? ateratera gu Deabrubaren cautiveriiotic, topeetara ardi galdubac; topau, artu vere lepuan, eta eruatera, vere artalda, eta guiberriietara; eracustera guri zeruko vidia, vere semezat gu

arzeera, eta vere erederu gu eguitera; azquenic, nos dator? Javerdiian, [sic] auda Mundubac iluntasunic andiiena eucanian; eta Jaun au errezibietaco ez dogu prestauco gueure arimia cuidadoric andiienagaz?

Laugarren eguin viardabena C. presteetaco vere viioza Jesus vere Jaiozaan errezibietaco, da, euqui veti inzensua Altaraan, auda, euqui desioric andiiena veti vacochac veragan, Jesus errezibietaco; Euqui viardon-gula guztiioc desio aiñ andiia Jesus errezibietaco gueure viiozeta, zein euqui ebeen testamentu zaarreco guraso onac; zerren desio andiia daucanari, etorrico Jaco Jesus vere viiozera graciia guztiequin; orregaiti Eleiza S. gueure ama viiozecuac, zorzi egunez, Jesusen Jaiozia baiño leenago, eracusten deuscu, egunian vein, ze modutan esplicau Jesusi desio oneec gueure arimeetara etorri dedin; Ô Jaquituriia Pareric ez dozuna, erdu gueure viiozeta [sic] eracusteria guri, zer eguin viardogun zu errezibietaco. Ô Munduko salvaguillia, zeruco ateetaco guilzeen Jaubia, erdu eta atera gaizuz Munduko iluntasun, eta laquio gueistuetatic. Desio oneec euqui viarditugu viioz guztitic, ze baldin badira viar dirian moducuac etorrico da Jesus gure viiozeta; amodiuac urtu viarditu gueure viiozac Jesuseganaco; Desio gueiiago euco guenduque Jesuseganaco, Considerauco baguendu, zer dan gure dignidadia, gure aberastasuna, Jaun au errezibietan dogunian gueure arimaan: Zer eguingo eteeban Abraam P. S. euqui baleu guc daucagun dichia, eta fortunia? Zer David erregue santubac? Zer veste Erregue eta Profeta S. ascoc? Ze neque andiac iragoten ez zitubeezan paraliticu, eta gueiso ascoc Jesus icusi ezinic, Jesusi vcututeco, Jesusen gueriziac edolavere vcutu eiiuen, osatuzeditan [sic] onela eureen enfermedadeetatic: guztiiac osatuten zirian, zerren desio euquena Jesuseganaco zan andiia, eta viioz guzticua, eta guc ez dogu euco oneenvesteco desia Jesuseganaco?

Azquenic euqui viardau C. Jesus errezibietaco Maiia auda, eguin viarda, vacochac aldaian ereduban, inos baño gueiiago, dempora Santu onetan, limosnia pobriai, eracusteco Jesuchristori deusagun amodiuua, vere sierbo, eta gueure proximuetan; zerren zeimbat gueiiago eracusi daigun Jesu Cristoren [sic] amodiuua proximuetan, aimbat gueiiago eracusico deuscu guri Jesu Christoc vere amodiuua, Vere etorreran gueure arimeetan: Gueure viiozac izan Viardau Mai zabala pobre tristeenzat, ez Jaco galduco inori pobriari eguiten deusana, eta gura badogu arindu pecatubac, [sic] ez dago limosnia laco erremedioric propisitu [sic] firme bategaz ez gueiiago pecaturic eguiteco, Viiozeco samintasunic andiienagaz eguinditugun pecatubac gaiti: Onez osterancian euqui viarditugu gueure viiozeco maiian Fede Vizilia, esperanzaric andiiena, eta amodio eguiatzua, zeinzuquin etorrico da, duda bagaric gueure viiozeco maionetara, Zeruco Jaanari, eta Mesias egui-azcua.

Modu onetan prestau viardogu gueure arimia, dempora santu onetan, Jesus errezibietaco gueure viiozeta, Consideraubagaz gueure oneraraco eguiten ditugula obra on guztia: ez dator Jesus mundura Vere Viarrez, guizonari deusan amodio andiiagaiti baño; guizona, oneraz, eta mesedes veteetara baño, eta emotera guizonari pensau ezin leitequian dignidade, eta anditasuna: Baña prestauco ezpaditugu gueure Viiozac Viardan moduban, eta circunstancia guztiiequin Jesus errezibietaco; oveda milla vidar ez errezividu, eta egún Belenguac egun ebena, ez emon gueugan egonlecuric, ez tellaperic, ez echeric; pecatuz veteeta, gueure oitura gueistuaquin artuco badogu Jesus, oveda ez artu; Ó ze ondo esaten eban Isaias Profeta santu bac dempora onetan vertan; Ó Jauna! zeure etorreraco arguitasun andia-gaz, asco ascori veguiiac arguitu deuseezuz; baña baliiau gura ez dabeelaco arguitasun onegaz, gura ez dogulaco icusi viarguenduquian moduban ar-guitasun au, ez zara poztuco viarlizatequian leguez; mesedes vete gaituzuz mundo guztiioc, zeure etorreriagaz, baña ez gara aprobecheetan mesede oneequin, eta ez da gueituten zure poza. Ara zuzen Isaiasen Profeziia, gure eguitiaquin, asco prestetan gara Jesusen Jaiozaraco, Jesus gueure viioze-tan errezibietaco, baña guichi viardan moduban, eta orregaiti ez da guei-tuten Jesusen poza, zerren loquerriaz veteric gueure conziencia, eta Ari-mia, errezibietan dogun, gueure Jaun eta Jaube; gente asco asco, baña pozcarri guichi Jesusenatz: ez dago bada, veste erremedioric, Jesusi emo-teco artu guraleuquia [sic] poza gugaz, Vere etorreran, prestetia baño gueure viiozat [sic] Viardan moduban; Zuzendu gaitian veragana; parca escatu daiogun orainguiñoco pecatubac gaiti, eta propositu firme vategaz ez pecaturic gueiago eguiteco artu daigun Jesus gueure viiozeta oraiñ eta veti. Amen.

Es copia literal. Derio, 1961-IX-14.

XABIER AMURIZA.

[En la portada dice:] †/Sermon de los Dolores de/ Maria, año 1828.
[El 8 final no está claro. Sobre otro signo se han hecho rasgos de 8].

†/ Dolores de Maria año 1828.

Cum vidisset ergo Jesus Matrem, et Discipulum stantem quem dili-gebat dicit Matri sue: Mulier, Ecce filius tuus, deinde dicit Discipulo, Ecce Mater tua. Joan. 19.v.26.

Beraz Cc. Ainguерuben Erreguiña, ta guizaaldi guztietaco esperantza ta poza, icusi biar dogu gaur guztija azpiratu ta zamintasun edo Dolorez inguratuba. Beraz cerubac beretzat izan cituban amodijo ta gracijazco Yturi ugarijac, biurtu ditu asserrezco Ychasca gogorretara, ta mundubac ez deutsa esquintzen, ezpada illuntasuna ta naibaguia. Oh, Siongo Doncella eder ta garvi, izan, ta izango diran guztien artian doatsu ta leijaléna [sic], bacar bacarric, ta besteric ez leguez ama ta Doncella izan, ta izango zariana! Cetaraco zure gomunta utsa izan zan arima justu ta Patriarca Santubeen poza, ta Ygarla Santubac necatutem ciran aillaguiña, goratu nairic zure icena, adierazoric Erregue Profetiac berac, apaindu cenduzala Jangoicuac berac alegrijaco gozotasunagaz? [Desde la palabra *apaindu* hasta *alegrijaco* hay unas cuantas palabras tachadas y en la parte superior de ellas han sido escritas éstas.] Ps. 44.8. *Unxit te Deus tuus oleo letitiae.* Cetaraco, diñot, aimbeste pozquerija, icusico baciñan gaur Dolorezco Ychasuetan ondatuba, ta jaio, ta jaioco diran emacume guztien artian errucarrijena? Nundic, ama laztana, aimbeste gora beera? Cec biurtu ditu alegrijazco ugarritasunac, orrelaco dolore ta garratzasunetara? Oh, Adanen seme alaba zorijonecuac! Asiera bagaco Aita beticuaren erabaguijetan icentaurico eva barrijac bere semiaren ama izateco, batu biar eban bere seme onegaz guizonaren libertaderaco sacrificijuan, alan, guizonaren amodijuac azpiratu beeban allaguiña, ataraco, ceruco erregueren gloria bera, amodijo onec beronec azpiratu, zamindu, ta garratzu [sic] biar eban bere amaren anditasun ta gloria guztija. Bai, Jesusec bere odolezco eriotziagaz atera guenduzan pecatubaren mendetic, ta edegui ceruco atiac, ta bere amac viotz ta arima barruko Doloreric izugarrijenacaz artu eban beragan gu salvacinoeco cai edo portura zucenduteco cargu edo lan santuba. Au guri arguituteco, Jesusec, bere azquenengo agonijaco zotien artian, verba eguiten eutsala bere amari Sn. Juanen buruban guizon guztiacaz, dirautso: *Mulier, Ecce filius tuus.* Andria, ara emen zure semia, edo semiac. ta bardin zucenduric Sn. Juani, *Ecce Mater tua.* Ara zure ama, edo ara adanen seme alaba guztien ama barrija.

Emen aguertuten jat bada niri gaurco sermoeraco guei egoqui bat, ta izango dà adierazotia, celaco dolore ta zamintasunac igaro cituban Jesusen amac gure amatzat gueldituteco. Bere doloreen anditasunac arguituco deuscu guretzaco daucan on erechi, amodijo ta erruquitasuna, ta alan atera naico dodan frutuba izango dà iguitutia aleguinez guztioen viotzac esquinii gaquijozan pocic bere seme ta alabatzat, gogoric senduenagaz erantzuteco leijal bere neurri bagaco mesedei.

[En la siguiente página:]

† / Sermon. / *Cum vidisset ergo Jesus &*

Ez dà Cc. guizonaren jaquiturija argalarentzat adierazotia Ama maite onen Doloriac eureen garraztasun guztijan, ta baldin Sn. Agustin batec esaten beeban, guizoneen gorputzetaco zati guztijac miyn biurtu arren, ez litzaatiala iñor duin izango biar leguez goratu ta alabetaco, eguijaz esan daiquet au berau bere Dolore ta zamintasuneen gañian. Noc iños aztertu dau biar leguez Jesus ta bere amaren viotzetaco amodijo edo etsiguitasuna? Ay! Salomonen samurtasun ta esacunerik vicijènac, labur gueldituten dira amodijo onen aurrian. Yzanic, bada, amodijo au bere doloreen neurrija, eureen ezaguera arguija beti izango dà eztalija gure argaltasunarentzat. Baña Adanen seme alaba aimbeste, ta aiñ dolore izugarrijeen jaube edo herederu garianoc, ez dogu aimbeste arguitasunen biarric bere leijaltasunian issiotuteco, ta alan ecin izango dà alperra eureen gomunta labur bat eguitia.

Ez dà ezagutu ta ez ezagutuko luurraren ganian Jesus ta bere amaren arteco amodijuaren bardinic, ez ur emotecoric, bada eureen viotzac janiziric amodijoric garvi ta samurrenaren apaingarri guztijacaz, ez euqueen eragozpen ta ez otzgarriric alcarregan gozatuteco. Alan ama maite onec beguiratuteneban bere seme Jesusegan bere amodijo bacarraren Yspilluban leguez, ta serafinic issiotubenac ez euqueen cer icusi bere viotzeco amodiozco garracaz. Baña ay, ester eder ta garvija! Ez zara izan jasua, ceuretzat bacarric, ceruco Erreguiña ta Jesusen ama izatera; zure lan ta carguba, ez dago amodijoric garvijènian gozatu, eta gloria ugarijeen jaube izatian utsic. ¡Ez! ezpada zabaldutian ceure altsutasun andijaren erruquitasunac esquintzen jatsuzan adanen seme alaba galduen gañian. Zure seme laztana esquiñiric eureen amorez curutzeco sacrificijoric gorrenera, lagundu biar dozu amodijo onetan, ta josi biar dabee zure viotz samurrian doloreric izugarrijeneen sillubacaz, bere gorputzeco zauri gustijac, artuteco amatasun barri bat genteric errucarrijenacaz. Bai, Eva ren ume Errucarijac [esta última palabra en la parte final está superpuesta a otras letras que se han querido tachar escribiendo encima], erbeste onetan negarrez, argaltasunez beteric ta cematuric alde guztietatic, biar guenduban Eva barri ta leijalago bat, ta aita beticuac ezarriric aitaraco zugan bere beguijac, icentau cenduzan gueure ama barritzat. Baña amatasun onen erruquitasuna guri eracusteco, beragan aurquitu guinaijan amodijo ondo baguia arguituteco, ta beraganaco leijaltasuna gueijago ta gueijago gure viotzetan issiotuteco, izan biar dau dolore ta garratztasunic izugarrijeneen frutuba. *tuam ipsius animam pertransibit gladius.*

Amatasun onegaz ázturic vici zarian pecatari gaisua! Beguirá cetara dacarren zure amodijuac Jesusen ama ta espíritu santubaren esposa garvijai Galdu biar dau bere seme bacar ta laztana, zure ama izateco; ta galdu

biar dau inoc munduban icusi ez daben tormentu ta lotsaarijetan, ta cerubac arguituric bere erabagui oneec, ez dau ecec atzeratuten, ta sendotasunic andijénagaz erantzuten dau: *Ecce ancila Domini, fiat mibi secundum verbum tuum.* Ara, Jauna, berorten mempeco edo esclavia, bete bitez nigan berorren erabagui Santu guztijac. Galdu daidala bai, neure seme bacar ta laztana, bete dedilla ordu onian bere curutzeo sacrificijo gogorra, ta ichassosco garraztasunac inguratu daijeela nire viotza, izan nadin evaren seme alaba gaissuen ama barrija. Beguira, diñot amodijo onetara, ta aztertu cerbait bere ondorengo doloriac. Baña ez dà nire asmua orain euraz [sic] ciaztau ez cembatutia, izanic beste arembeste, ceinda Jesusen pasinoeco pausubac. Banacaren batsuc aitatutia uste dot asco izango dala neure asmua bete, ta arri biurturic ez dagozan viotzac iguituteco.

Egijaz Cc. baldin bere vorondateco sacrificijo utsac jasoten baditu nai ta ezco sentimentubac gure viotzeten, celacuac jasoco ez ditu icustiac ama maite au bere seme laztanaren tormenturic izugarrijeneen testigu? Catigarioj [sic], osticada, belaarrondoco, burla, lotsáari ta sentencia oquerreen ondoren, espalda billosaquin lotuten dabee Jesus pillar baten ta óleoeric [no se entienden bien las dos primeras letras, ni si es una letra solamente] amorratubeenac essesten deutsse bata bestiaren ondoren azotez zaurituten adicatu arte guztijan; azote puntaac daruez bere araguí zatijac, ta aguertutten jacozi saiets azurrac; eta zu Sunamitis samur ta ederra berari beguira, zu bere onduan? Nun zan zure amodijua? Nun dà zure viotza? Ainguero eder jazoera onen testigu izan ciñeenac, zubec esan daiquezubez cerbait ama maite onen viotzian igaroco zan doloriaren gafian. Nic esan daiquedana dà, arturic ama maite onec nire amorez ain zauri garratza bere viotzian, ez daquidala celan aurquitu deitequian [sic] neuria bere leijaltasun ta esquer onian issiotu baga.

Ama maite ta errucarrija, icusiric zure semiaren arerijo ta boreru-been gogortasuna, jaquifíc eureen aurreraco astmuac, alde eguiuzu arren bacartade batera, ascatu bitez zure beguijetaco Yturrijac, ta atseen dajala albadau cerbait zure viotzac, bada asco dà sacrificioric guizonaren amorez; baña ez, edan biar dau caliza garratza azquenéngo ondar saminetaraguiño.

Erallaric gogorrénac, azote izugarrijeen ondoren, imiñiric coroe arantzazcua buruban, ta curutze astuna bere lepuan, darue Jesus Calvarijoco lecura. Gente pilluaren indarrez ecin urreraturic beragana ama laztana, aurreraturic, icharoten deutsa cale canteo baten, nundic igaro biar eban: urreratu zanian gueldituten dà Jesus, ta beguiratzen deutsee alcarri ama semiac. Oh, beguiracune samur, ta bide batez garratzasunian irudiric ez

daucana! Beguiratuten deutsee alcarri, baña issillic dagoz eureen miyñac, ta bacarric verba eguiten dabee eureen viotzac. Baña cer ete? Nic ez daquit, Baña beguitanduten jat cirauntsala ama maite onen viotzac: zuaz, seme laztana, zuaz ceure sacrificijora, emon eguiyu azquenengo odol tantaragiño adanen seme alaba galdubac gaiti, an nozu ni bere ondoren, esquintsera eureen amorez zure ofetan zure amodijuac neure viotzian emon biar deustazan azquenengo zauriric míngochénac [sic]. Eta peccatari gaissua; escatu cinaijo amodijo gueijago ama maite oni? Bada, ja iraitu eguijoxa Calvarijoco mendi gañera. Eraen [la *r* de la palabra *Eraen* no es segura. Puede ser *Emen*.], edolabere uste dot ez jatsula gueldituco gueijago cer escatu.

Gogortasunic izugarrijeneen ondoren josten dabee Jesus viciric curutziā lapur biren erdijan. Esanic eguan leguez, bere oñazpitic [al principio de la palabra las letras *oñ* están escritas sobre otros signos que quedan tachados] buru gañeragiño ez eucan zati osoric. Arantza punta gogorretatic garunetaco odola, Vltziac atera ditubee Yturri ugarijac escuta ofetatic, ta gorputz guztija zauritu ta odolez jantziric, ta orregaitic ama curutziaren onduan zutunic dirauscu *Sn. Juan Evangelistiac*. Bai, ama beguira, ez Jesusen penaac arinduteco, bada ez daucha ur tanta bat cer emon bere egarrija ezcotuteco, ezpada bere semiaren *Yspillu negargarrí* atan gure amorez bere viotza gueijago zaurituteco. Ama beguira, ez bere semiaren agur gozoren bat entzuteco, ezpada amaren icen gozuaren ordez andriaren icen otza entzuteco.

Amaitu biar ebanian Jesusec bere sacrificio gogorra, agonijaco azquenengo zotinetan zucenduric bere ama ta Discipulu maitiagana dirautso leleengo amari *Mulier ecce filius tuus*. Andria, ara or zure semia; ta guero Discipulubari, *Ecce Mater tua*: Ara zure ama. Au dà, ara or nire Discipulu ori, ta nire doctrinari jarraitu nai deutsén guztijac zure seme ta alabatzat, zucendu eguiuz bide garbijetatic arima leijalac, ta arima argalei bere luzatu eljézubee ceure escu erruquiorra jagui ditian [la *t* de la última palabra está escrita sobre otro signo y no es clara] bide galdubetatic ta zucendu ceruco bide eguijazzcora. Onezquero ez dozu izango nigaz lùrrian semeric, baña erosiric ta ascaturic neure odolagaz adanen seme alabaac, izango zara eureen ama, eureen poza, alegría ta amparuba.

Ez dà cetan esan, ta bacochac pensau daique, cembateraguïño edeguico zan ama maite onen viotza entzunic Jesusen aotic andriaren icena ta ez amarena, baña guztija darua ontzat gure erruqui ta amorez. Alan aldendu baga bere beguijac, Agarrec beste dempora baten aldendu cituhan leguez bere semiaren eriotzia ez icuste arren, jaoca Jesusi beguira azquenengo cizpurubac curutze atan emon artian.

Oh Adanen seme alaba, nai badogu, benetan zorijonecuac [desde *Adanen* hasta *zorijonecuac* hay palabras tachadas en la parte inferior de la línea que constituyen que dicen así: *pecatari aimbeste dolore ta garratztasunagaz erosijac*] Amodijua ez dá ezagutzen atseguiñetan, naigabetan [sic] baño, ta baldin ama maite onec erosi bagaitu aimbeste Dolore ta garratztasunegaz ¿cer escatuten deuscu bere amodijo onec?

Es copia literal. Durango, 1961-VIII.

JESUS FCO. GARITAONANDIA.

Fragmento del sermón de Fr. Franco. *Tristan de Huandurraga*, (EUSKERA 1960, pág. 341). Tamaño natural.

Fragmento del sermón de Fr. Juan de Ajuria (1800), (EUSKERA) 1960, pág. 354). El sermón de 1806 del mismo (EUSKERA 1960, pág. 366) tiene la misma letra.

Tamaño natural.

Y amaní bipunens! Viven vos. Cr-
piente fons: Eppos edexa. Cet agitatus zashz olaqueus? Yav aja bawas. Esca-
zis de jas: ne billechis, izom i zulcos puz qizan i zulcos i qaziqen, hanz su que-
deros, su peccatoyos benguus. O ame manis; even la ois' huk amedjizam lazzengus-
tauvus. Chaitimus vistemas, su aldi anguitus pusa elvia metem, uobazsta dñ-
buci bese peratuhan dunes. Muz delorahat apuris; bipunens i bawas i ta dñba.
sea maztusus o pellusic oppa jens. La oida inca tangnico amibent bawus paraja

Fragmento del sermón n.º 1. Tamaño natural.

une benceta sagotonic se diengos tatus talen. Cuer lomia con
tarlau dala urz dan prototigaz la guren demungaz aanduco de
tarlo cuor penas, siedita mio exequititon puroco puroc mun-
duo algarra de sonqoypas horuan diqueval! Yavon kegu' bade
nandabena ean keguyue ean sla da oaxx negazares maztutaco
kertuan amotoluacor exditatu atamio cuor eni mordu quetotic. Sz
dancat mi esperanace. Uste aro da tangonuua comidatan ac-

Fragmento del sermón n.º 2. Tamaño natural.

Bada cox, viciaran
indomian duazanai, muguetzarruan
bano exauzen estentzeari, suanosa -
gure Iesu zioira eizozita consoletzen
penaak anindutzena, ta zide etenriade -

Fragamento del sermón n.º 3. Tamaño natural.

taue hangoianaren itzalakia higanduz zelai; eta txamor mun
zobaxi, eta Xeraa opa deniztzaun gurez, eta jahezadiori;
lelengo gurazio sacrificadu oianua gurezina, eta Xurene ibar
gurengarren perrea eratzeten egun ditzagun guretxopenerria
gurutzea gauzi: Ze esempla ora hauzegun David emugutene

Fragamento del sermón n.º 4. Tamaño natural.

zinc amoldjone i granito sanxeren abriga-
rasi portijas, ex engreer exagozpan te exolgaran-
sic allexegan portutec. Offer Anna morte one c-
bemiratodos oban bese rene iengaran bese amo-
chijo bacaxaren Upsilon leper, ta vacilim iiii-
tribonac ex engreer ces iuri bese vistoso amoldj-

Fragmento del sermon n.º 5. Tamaño natural.